

## ALTZARI BURUZKO PINTZELADAK

---

Joan Mari IRIGOIEN

Aitzak ez du, ez, bihotzik,  
baina Donostiak kendu egin ziolako:  
pozik dago beste munduan Franco!

Atzo, atzo, atzo,  
atzo hil ziren hamar atso:  
baita gure bi erreka haiek ere,  
Dendatxo eta Larratxo.

Ez zekien asko San Markosek  
zabor-biltzaile egingo zutenik  
kutsatuko da bera ere azkenik!

Txoritokietan, pin-pan-pun:  
hegaztien etorkizuna, ilun.

Autopistako zaratotsak han,  
moto burrunbak hemen:  
eromen

Ondo ahaztuta dugu zer esan zuen Trotski-k.  
Langileen arazoak konponduko omen ditu Eroskik..

Donostiak jotzen duen soinuan  
egiten du Altzak dantza:  
datorren urtean ere berdin  
joko dugu danborrada, antza...

Donostian nagusi, Pepe;  
etxean, berriz, Pepito:  
ez daitezela izan betiko!

– Zer agintari doa autobus honetan?  
– Ordoñez?  
– Nahiago orduan oinez!

Txantxangorriaren habian  
nagusi da kuku  
Eta gu, hemen, mutu.

Baina Altzan den-dena  
txar-txarra ere ez degu:  
Arriyako Parkea, eredu.